



Iritziak

Estatu kolpea Bolivian



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Evo Moralesek presidente kargua hartu arte, indigenek eta gutxiengoen etnikoek segregazio erregimen bat bizi zuten Bolivian. Ezkerreko gobernu berriak egoera hura deuseztatu zuen. Hegoafrikan ez bezala, Bolivian demokratizazioa arlo ekonomikora ere zabaltzen zen, aberatsen eta pobreen –nekazal gune eta hiri guneen– arteko arrakalak gutxituz. Arlo sozioekonomikoari erreparatuta, Evoren Boliviak mikro eta makro adierazle ezin hobekak izan ditu, besteak beste, bere lehengaien gaineko kontrola berreskuratu zuelako.

Halere, Latinoamerikako gainontzeko ezkerreko gobernu suberbanistek bezala, Boliviako Gobernuak gerra hibridoaren erdian jardun du: hedabideen jazarpena, Mendebaldeko gobernuen presioak, mobilizazio biolentoak eta estatu kolpe saiakerak. Mendebaldean gutxiagoagatik salbuespen egoerak aldarrikatu, eskubide zibilak eten dira eta militarrek kalera atzeratzen dituzte.

2008an oposizioak hamarnaka indigena eta nekazari hil zituen. Urte hartako estatu kolpe saiakera ez zen aurrera atera, batez ere, Brasil eta Lula da Silvarekin. Orduetik ezkerreko gobernuak sekulako astindua jaso zuten estatu kolpe bigun eta gogorrekin. Halere, egoera aldatzen hasi zen Mexikoko eta Argentinako ezkerreko garaipenarengatik eta Venezuelako eta Nikaraguako estatu kolpe saiakerak garaituak izan zirelako.

Estatu kolpea lehenengo biguna eta gero gogorra izan da, prozesua abiatzeko eta azkartzeko hauteskunde iruzurraren susmoa zabaltzen dute

Ezker latinoamerikarraren berrindartzeari aurre egiteko eskuinak eta AEBek garaipen inportante bat behar zuten epe motzean. 2019 urteak une aproposa zirudien, 2016an Evok erreferenduma galdu ostean burutu zuen kudeaketa kaskarrak pitzadura bat sortu zuen Boliviako Gobernuak zituen babesen artean. Bestalde, klase ertain berrien artean, ongizatera azkar ohitutakoak, klase ertain eta klase altu zaharren jarrera klasista eta arrazistak agertzen hasiak ziren. Azkenik, Jair Bolsonaro da Brasilo agintaria eta honek zeresan handiena dauka erregioan, baita Boliviako politikan eta ekonomian ere.

Estatu kolpea lehenengo biguna eta gero gogorra izan da, prozesua abiatzeko eta azkartzeko hauteskunde iruzurraren susmoa zabaltzen dute. Horretarako, hauteskunde aurretik prestatzen da agertokia jendartearen dauden kontraesanak bilatuz eta elikatuz, agenda hori bere egingo duten GKEak bultzatuz, kanpai-

na mediatikoak antolatuz eta oposizioa eta nazioarteko agenteak koordinatuz. Behin ustezko iruzurraren birusa askatuta, txoko guztietara zabaltzen da, egia ote den axola gabe.

Amerikako Estatuaren Erakundea (OEA) auditoretzaren parte da eta zientifikoki lardaskeria handia. Halere, Evok onartu zuen emaitza hauteskunde berriak deituz, ez da gauza hain arraroa lehia estua denean, Austriar gertatu da. Baina alferrik zen, hasieratik asmoa estatu kolpe gogorra ematea zen. Halere, indar ezkertiar suberbanisten borroka ez da amaitu. Kolpistek duten arazo nagusia da gutxiengo arrazista eta klasista direla eta behin kolpea emanda une batean edo bestean egoera erregularizatu behar dute termino liberal-demokratikotik, gutxi-asko Hondurasen egin zuten bezala. Baina Bolivian indar harremana oso bestelakoa da, indigenak gehiengo dira, indar suberbanistak indartsuagoak dira. Epe motzean estatu kolpea indarrez mantendu daiteke, baina epe ertain-luzean hori egin ahal izateko aukera bakarra diktadura militarra ezartzea da. Ez dirudi bideragarria, horregatik, beraien estrategia etsai politikoak jartzeari eta erreprimiteari beldurra sortzeko shock terapia baten antzera. Terapia ezin dute luzaroan mantendu. Asteak, hilabeteak edo urteak izan daitezke, baina ezker suberbanista Boliviako gobernura bueltatuko da. ●